

Eskumuturreko horrek edozein publikotarako balio duen arren, kaltetuenengan zentratu nahi dugu, hau da, gure produktuak amaituko dituen delituek eragindako talde horietara bideratu nahi dugu gure burua. Kasu honetan, talde horiek emakumeak edo nerabeak izan ohi dira, baina, batez ere, emakumeak. Beraz, eskumuturrekoaren garapena proposamenetara eta sektore horrek, emakumeek, eskatzen duenera bideratuko dugu, eta are zehatzagoak izateko, azterlan batzuen arabera, 16 eta 35 urte bitarteko emakumeak izan ohi dira kaltetuenak, orduan, emakume talde horren estetikarekin kuadratzan den produktu bat egin eta garatuko dugu, izan ere, eskumuturreko politikak izatea eta arreta askorik ez deitzea nahi dugu.

Hala ere, ez ditugu ahaztu behar beste bezeroak, hau da, emakumeak ez direnak eta gure bezero objektiboak ez direnak; horregatik, gure eskumuturrekoak pertsonalizatuak izan daitezke koloreari dagokionez, eta marrazkitxoak eta abar gehitu ahal izango zaizkie, zentratzen ez garen bezeroek eskumuturreko hori erosteko eta egunero erabiltzeko aukera izan dezaten.

Hori esanda, gure eskumuturrekoa merkatu nitxo batean zentratuko da, kasu honetan segurtasunaren barruan, autodefentsan, eta merkatu horren barruan, nahiz eta emakumeetan zentratu, gure produktua, esan dugun bezala, unibertsala izango da eta edozein bezerorentzat izango da.